

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Eraikin publikoen mantentze-lanen arduradunako 8 plaza, txanda irekiaren bidez, hautatzeko epaimahaia aldatzea.**

Alkateak, Alkatezaren DEC-2022/001652 (2022ko maiatzaren 5) zenbakiko Dekretua eman du, eta honako hau ebatzi du:

Lehenengoa: Onartzea Josune Elorriaga Miguel abstentzioa (eraikin publikoen mantentze-lanetako 8 arduradun izateko hautaketa-prozesuko kalifikazio-epaimahaiko idazkari titularra) eta izendatutako ordezkoa titular izatea.

Bigarrena: DEC-2022/001435 Dekretuan ezarritako Hautaketa Epaimahaiaren osakeria aldatzea, pertsona hauei dagokienez:

- Idazkaria (titularra): Maria del Carmen Centeno Carriba.
- Idazkaria (ordezkoa): Inge Sourrouille García.

Hirugarrena: Halaber, interesdunei jakinaraztea eta dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratzea xedatzen da.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek parte hartzeari uko egin diezaioten argitaratzen da hori, eta organo eskudunari jakinarazten zaio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, eta izangaiak errefusatu egin ditzake, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

Basaurin, 2022ko maiatzaren 10ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren